

2009KO MARTXOAK 26

26 DE MARZO DE 2009

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO MARTXOAK 26

DIA: 26 DE MARZO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA  
Lide AMILIBIA BERGARETXE  
Manuel ZUBIA ARTABE  
Unai MANZISIDOR ANDONEGI  
Andoni ETXANIZ OSA  
Miren Nerea EPELDE AZKUE  
Pilar ETXABE IRIONDO  
Cristina FORCADA UNANUE.  
Xabier OLAIZOLA ANTIA.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Paloma HEREDERO NEGREDO

Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA

ORDEZKO IDAZKARIA: JON GIL BELTZA,  
SECRETARIO ACCTAL.

Alkate jaunak bilera eratutzat  
ematen du.

Se da por constituida la sesión  
por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, Joseba ere pentsatzen dut  
oraintxe etorriko dela, martxoak -26- plenoari ekingo diogu lehenengo  
puntua aurreko bileretako akten onarpena, bidezko baldin bada.

Bi akta dauzkagu, akordatzen zarete azkenengo plenoan esan nuela, akta  
luze hori oraindik egiteko zegoela, astirik eman ez zuelako eta gaur  
ekartzen dugu, bateren batek zeozer esatekorik... akten inguruan, Ezerrez;  
M. Eugenia? Emiliano? Ezerrez, Xabier? Ezerrez,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Kontutxo bat,

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: 44. orrialdean, nere interbentzio bat  
transkribitu edo idazten den goikalde horretan ikusi genezake zenbaki  
batzuk negritan 14:02, hori ez dakit, pentsatzen dut errata bat dela, ez dakit  
garrantzia edukiko duen hor jasotzea edo ez? 14:02 ez dakit, usten dut  
soberan dagoela eta pentsatzen dut hor akatsen bat dagoela, zeren  
esaldiaren logika ere “edo gurekin konbiventziak 14:02 direlako beste  
batzuek bezala” ez dakit hor zerbait akatsen bat dago eta bueno behintzat  
14:02 hori soberan dagoela eta kendu dadila, ez dakit, nik logikarik ez diot  
bilatzen eta ez dut uste nik aipatu nuenik word-eko arazo bat izango da  
edo...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, ba.. listo, Bai. Jon.. eh ?

Bai, bi aktak, bai biak onartzen dira.

Besterik gabe hirigintza pasako gara,

**Juan M. eta Nerea Azpillaga Echeverria sustatutako AU 02 - SAN TELMO ARRABALEKO XEHETASUN ESTUDIOARI BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

Hau dagoeneko asteleheneko hirigintza batzordean ikusita dago eta Andoni, zuk nahi baldin baduzu, hitza ematen dizut

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bertan jartzen duena, irakurriko dut,

2009K0 MARTXOAREN  
23K0

HIRIGINTZA BATZOR-  
DEAREN IRIZPENA,

Arratsaldeon;

Joseba Josu Azpiazu Azkarraga  
zinegotzia etortzen da.

02 EU(Eremu... EU zer esan  
nahi du, nola Eremu Urbanistikoa?  
02 Eremu Urbanistikoa? Edo  
Jardun Unitatea? "SAN TELMO  
AUZOA" XEHETASUN -  
AZTERKETARI BEHIN BETIKO  
ONARPENA EMATEKO

**AURREKARIAK**

1.- 2009-01-15ko datako Tokiko  
Gobernu Batzordearen akordioz,  
Juan M.<sup>a</sup> Azpillaga Echeverria eta  
Nerea Azpillaga Echeverriak  
bultzaturiko eta Jose M. Alberdi  
Alberdi eta Raquel Ortega Alonso  
talde teknikoak idatziriko «Arrabal  
de San Telmo» A.U 02 E.U  
Lursaileko Xehetasun-azterketa  
haserako izaeraz onartu zen.

2.- Indarrean dagoen legediak  
xedatutakoaren arabera, horren  
berri ematen da jendeari  
Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean  
eta zabalkunde gehien duen  
lurraldeko egunkari batean  
iragarkia argitaratuz, 20 eguneko  
epean, azken argitalpenetik

DICTAMEN DE LA  
COMISIÓN

INFORMATIVA DE URBA-  
NISMO DE 23 DE MARZO DE  
2009 SOBRE LA APROBACION  
PROVISIONAL DEL AU 02-  
ARRABAL SAN TELMO,

Arratsaldeon;

Se incorpora a la sesión el  
concejal Joseba Josu Azpiazu  
Azkarraga,

**ANTECEDENTES**

1.-Mediante Acuerdo de la Junta  
de Gobierno Local del día 15-01-  
2009, se acordó aprobar  
inicialmente el Estudio de Detalle  
del AU 02-Arrabal San Telmo de  
Zumaia, promovido por Juan M<sup>a</sup>  
Azpillaga Etxeverria y Nerea  
Azpillaga Echeverria y redactado  
por los técnicos José M<sup>a</sup> Alberdi  
Alberdi y Raquel Ortega Alonso.

2.-De acuerdo con lo  
establecido en la legislación  
vigente, se realizó la exposición  
pública, mediante anuncio  
publicado en el Boletín Oficial de  
Gipuzkoa y en el periódico de  
mayor difusión en la provincia,  
por un período de 20 días contados

zenbatzen hasita.

Aldizkari ofizialean Otsailaren 9an azaldu zen, eta agerraldi publikoa martxoaren 4rarte iraundu.

3.- Jendeaurrean izan den epearen barne ez da alegaziorik aurkeztu.

4.- 2009ko Martxoaren 16an ospaturiko Hirigintza Batzordean agerraldi epean ez zirela alegaziorik aurkeztu azaldu zen.

5- IRIZPENA jaso dezan 02 EU "San Telmo Auzoko XEHETASUN-AZTERKETA aurkezten da.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2009ko Martxoaren 23an, ondorengo botoekin

Alde: EA; Ezker-Abertzalea edo Talde Mistoa kasu honetan; EAJ, eta EB-Aralar

Kontra: Ez zen inor agertu eta Abstentziorik ere ez zen egon,

Hirigintza Batzorde informatiboak ALDEKO irizpena eman du eta honako PROPOSAMEN hau udalbatzako osoko bilkuraren irizpean jartzea erabaki du (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47

desde la fecha de la última publicación.

La publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa se realizó el día 9 de febrero y el período de exposición pública finalizó el día 4 de marzo.

3.- Durante el período de exposición pública no se ha presentado alegación alguna.

4.- En la Comisión de Urbanismo del día 16 de marzo de 2009 se dio cuenta de que no se habían presentado alegaciones en el período de exposición pública.

5.-Se da cuenta del ESTUDIO DE DETALLE del AU 02-Arrabal de San Telmo, con el objeto de emitir el correspondiente

#### DICTAMEN.

En consecuencia la Comisión informativa de Urbanismo de fecha 23 de marzo de 2009, tras la siguiente votación:

A favor: EA; Ezker Abertzalea edo Talde Mixtoa; EAJ; EB-Aralar-

En contra: No voto nadie

Abstención: No hubo,

acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y someterlo a la consideración del Pleno que deberá adoptar el acuerdo con el quorum de la mayoría simple de

artikuluaren araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko da):

1.- Juan M<sup>a</sup> eta Nerea Azpillaga Echeverriak sustatutako, AU 02-San Telmo Arrabaleko Xehetasun Estudioari behin-betiko onarpena ematea.

2.- Ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Eraiketa proiektuan, garajeak, gune irekiak bezala zehaztuko dira, eraikigarritasuna konputatu ez dezaten.

- Gune librearen azalera egiaztatu beharko da, 85 zm.ko zabaleran eta 40 m. luzeran, beraz, 6 eta 7 planoak bateratu beharko dira.

- Birpartzelazio proiektua egin behar da, zeinak, legeak aurreikusten duen %15eko lagapena baloratuko duen eta legean aurreikusitako dotazio-zamen monetarizazioa.

3. Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

los miembros presentes, la siguiente PROPUESTA:

1.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle del AU 02-Arrabal San Telmo, promovido por Juan M<sup>a</sup> y Nerea Azpillaga Echeverria.

2.- Se deberán cumplir las siguientes condiciones:

- El proyecto de edificación deberá definir los garajes como elementos abiertos, al objeto de no computar edificabilidad.

- Será necesario instrumentar la superficie destinada a espacios libres hasta una superficie de suelo de 85 cm. de anchura y 40 m. de longitud, por lo que deberán refundirse los planos 6 y 7.

- Deberá redactarse el Proyecto de Reparcelación, que valorará la cesión del 15% legalmente prevista y la monetarización del levantamiento de cargas dotacionales legalmente previstas.

3.- El texto íntegro del acuerdo definitivo deberá de ser publicado en el BOG sin que entre en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

Zumaia 2009ko Martxoak 23  
Hirigintzaren, Herri-lanen eta Ingurumenaren  
Arduraduna

Proiektu hau, Hirigintza batzordean aurkeztu izan da, behin baino gehiagotan, nik usten dut zein etxebizitzetaz edo zein sailletaz ari garen

denok jakin badakigula eta bueno... irizpina duenez hau behin betikoz onartzeko moduan ekartzen dugu udal plenora,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, nik bakarrik gauzatxo bat, irizpenari dagokionez eta alderdi politikoen zera... zehazten denean ordenantzen arabera usten dut Ezker Abertzalearen partez Talde Misto jarri beharko lukeela, baina bueno... aipamen txiki hori.

M. Eugenia, zerbait esatekorik?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez, nik galdera bakarrik daukat, galdera bat, eta akaso... ia ahaztuta nago, baina... xehetasun-azterketak onartzeko plenora ekarri behar izaten dira?, Bai?...,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Idazkariak, bai erantzun du. Esan nahi dut gero transkribatzeko orduan...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Jon, mikrofonoa daukazu, hitzegin ezazu mikrofonora.. orain bai...

JON GIL, IDAZKARIA.: Bai xehetasun-azterketek udal osoaren onarpena behar dute. Dira, orokorrean exekuzioko proiektuek alkatetzaren dekretuz onartu daitezke edo batzorde lokalaren akordioz delegatuta baldin badago konpententzia, eta bestela orokorrean esan da plangintzako dokumentuen onarpenak, behin betiko onarpenak, udal plenoarenak dira. Kasu honetan xehetasun azterketaren onarpena plenoarena da.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Behin betikoko onarpenak, baina hau behin behineko onarpena da, ez?

JON GIL, IDAZKARIA.: Behin betikoa, hasierakoak dekretuz egin daiteke baina behin betikoa plenoaren konpententzia da.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Esan nahi dudana da diktamenaren izenburuan... bueno bai, euskaraz ondo dago “behin betiko”, baina “aprobación provisional” jartzen du erderaz.

JON GIL, IDAZKARIA.: Tituluan, aprobación provisional jartzen du, eta bigarren orrialdean bai agertzen da aprobación definitiva lehenengo puntuan.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, Emiliano, zerbait esateko? Ezerrez;  
Cristina edo Xabier? Ezerrez;  
Andoni? Ezerrez; bueno ba... besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, PSOE-k?

Sr. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS: A favor

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua; Ezker-Batua Aralarrek?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa, Talde mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldekoa eta EA-k ere aldekoa,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoak; 1 PSOE; 2 EA)  
Aurkako botuak: 0  
Abstentzioak: 0

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoak; 1 PSOE; eta 2 EA)  
Votos en contra: 0  
Abstenciones: 0

LEHENENGOA: Juan M. eta Nerea Azpillaga Echeverriak sustatutako AU 02- SAN TELMO ARRABALEKO XEHETASUN ESTUDIOA BEHIN BETIKO ETA AHO BATEZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR DEFINITIVAMENTE Y POR UNANIMIDAD EL ESTUDIO DE DETALLE DEL AU 02- ARRABAL, promovido por Juan M<sup>a</sup>. y Nerea Azpillaga Echeverría.

BIGARRENGOA: Akordio hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea,

SEGUNDO: Publicar dicho acuerdo en el Boletín Oficial de Guipúzcoa,

Nik ez dut hasieran aipatu eta orain aipatuko dut, Liobak, idazkari modura gaur ezin izan du honera etorri, beste arazo pertsonal bat zeukalako eta horren ordez Jon Gil izendatua izan da ba.. horretarako boterea badagoelako eta Liobak eman dio ordezkaketa hori gaurko pleno honetarako.

Ez dakit, eskari-galderetan, galderen aurretik egiten den presazko izaeraz edo ondoren egiten den; aurretik egiten da.

Ba... presazko izaeraz bai nahiko nuke bidali zaizuen dagoeneko batzordean aipatu zen Gizarte Zerbitzuetako batzordean, baino bueno, bidali zaizue baita ere, atzo bidali zen:

GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN LANKIDETZA-PROGRAMAK, GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKOAK ETA EKINTZA HUMANITARIOKOAK DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK onartzea ekartzea hona eta bueno presazko izaeraz onartzeko proposatzen dut gaia:

2008ko pixkat historia egiteagatik, labur-labur; 2008ko irailaren hamaseian aztertzen hasi zen; beste herrietatik onartuta zeuden beste herrietako batzuk, beste herri batzuetako ordenantzak ekarriz, handik hamabost egunera Zumairako propioki onartu zitekeen oinarrien berradorea bat aurkezten da, zeina batzorde horren ondoren, batzorde horretan egiten den ekarpen eta aldaketen ondoren, urriaren zazpian egindako batzordean, 2008ko urriaren zazpian behin behinekoz ontzat ematen da eta ondoren egiten den Gobernu Batzorde batean behin betikoz onartu dezatela.

Diru-laguntzak oinarri horien arabera banatuak izan ziren eta aurreko oinarri horiei aldaketa bat egiten zaie, otsailean hiruan egiten den batzorde batean eta batzorde horretan dagoeneko aipatuta dauden zenbait elementu jartzen direlako, adibidez, Estatu mailan akordatu naiz entitateak behar dutela izan eta ez Europa mailakoak etbr... eta esplikatzen bere garaian zergatik egiten ziren aldaketa horiek.



Kuestioa da aurreko urtekoak Gobernu Batzordetik pasa zirela eta aurreko gaiarekin txertatuz, baita ere M. Eugeniak egin duen galderarekin gertatzen da ordea, Liobak idazkariak, esan duela ba... gai hau Gobernu Batzordetik, oinarri hauek Gobernu Batzordetik onartu beharrean plenotik onartuak beharra dutela izan.

Bitarte horretan, ordea, otsailetik hona Daralhi elkartekoak, Saharara egin behar duten bidaia dela eta ez dela, lehengo urtean eman zitzaizen hemezortzi mila euroko dirulaguntzaz aparte diru gehiago behar dute, Zer gertatzen da? Diruz larri dabilzala, kreditu pertsonalak eskatzekotan direla eta guk nahi izan dugu, hau lehen bait lehen ontzat eman plenoan, Liobak esan duen bezala eta dirulaguntzak martxan jarri ba.. inori horrelako ondorioak ez diezaioten.

Beraz, ulertzen dut, nahiko konsensu, nahiko eztabaidatua izan den gai bat denez, nahiko konsensua dagoenez honen inguruan eta ikusirik zer arrazoigatik aurreratzen ditugun gauzak, ba... presazko izaeraz bada ere.. ba... hona onartzeko intentzioarekin ekartzen dut, Bateren batek zerbait esatekorik, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA, AND.: Bai, nahikoa eztabaidatua eta nahikoa konsensu duen gaia, baina... zenbatgarrengo aldia da presazko izaeraz gaiak ekartzen dituzuela plenoetara?;

Zenbatgarrengo aldia da hau aipatu behar izan dugula?,

Neri burura datorkit (seguru ez dela zerrenda exhaustibo bat) Altuna eta Uriaren alde egin zen hirigintz hitzarmenaren aldaketa bat; Ardantzabideko promotoraren alde egin zen permuta bat; Erein izeneko enpresa baten alde faktura pagatzeko egin zen kreditu aldaketa bat; orain bai udalari Daralhi Elkartearen alde egin beharreko presazko izaera duen tramite bat dakarkizue, ba... gure ustez hori ez da gauzak egiteko era eta ohikoa bihurtzen ari dela iruditzen zaigu eta beste behin esan beharra daukagu ez gaudela batere ados.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Emiliano,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Eh... Bien, es cierto que esta cuestión debe de, digamos de utilizarse o esta vía, mejor dicho debe de utilizarse lo menos posible en cuestiones que no sean de una extrema gravedad.

Puede estar totalmente justificado el hecho de presentarlo ahora, pero creo que hay que procurar de alguna manera evitar en la medida que sea posible que tengamos que recurrir a esta forma una y otra vez. De todas maneras no sé si no lo he oído, ó no lo has comentado la cuantía hablaba de 18 mil euros el año pasado y este año cuánto sería?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Si mal no recuerdo son diez mil euros,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Eh?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Diez mil euros;

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Diez mil;

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Creo; lo que le corresponde a Darahli,

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Más...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Sí, a esta asociación en concreto. Tendría que mirar mejor en base al Reglamento pero a tenor de lo...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, gaiak presazko izaeraz ekartzea edo ez ekartzea, aukera bat da, arautua dagoen aukera bat da, aukera hori ahalbideratuko du edo ez pleno honek, eta pleno honek emango ditu eman behar dituen bozkek, gaia tratatzeko modukoa iruditzen baldin bazaigu aldeko bozka emango dugu eta hala ez baldin bada kontrakoa; tratatuko dugu edo ez pleno honek hala erabakitzen baldin badu.

Neri behintzat iruditzen zait, notiziarik ez dagoen lekuan ba.. notiziak bilatzen ibiltzen garela, oposizioak pleno guztietan dauka aukera baita ere gaiak urgentziaz tratatzea eskatzeko, nahiz eta gure eguneko aztergaian horrela agertzen ez den, nik uste agertuko balitz ere kalte ez luekeela egingo, zeren, berez legeak horrela ordenatzen ditu plenoak, lehendabizi ohiko edo eguneko aztergaian sartuta dauden gaiak tratatu behar dira, ondoren urgentziaz sartu nahi ote den gairen bat galdetu beharko luke beti Alkateak, baino hori bueno.... Gobernuan gauden momentutik ba... ikasi dugu eta Azpeitian berriki gertatu direnak gertatu direla ere ikasteko aukera eduki dugu eta berez ohikoa izan beharko lukeena edo ohikotasun baten barruan egon daitekeen zerbait, ez ohikoa izango balitz bezala edo, ez dakit, grabea izango balitz bezala, azaldu nahi da.

Kontua da, ba.. zer nolako gaiak ekartzen diren kontuan hartu beharko dugula. Gai hauen inguruan behar bezalako informazio daukagun edo ez kontuan hartu beharko dugula eta horren baitan bozkatuko dugula, normaltasun osoz bozkatuko dugu eta baietz ateratzen baldin bada tratatuko da eta ezetz ateratzen baldin bada ez da tratatuko eta normaltasun horretan lana egiten jarraituko dugu normaltasunez eta gaia ez dagoen lekuan ba.. ni saiaturiko nintzateke gairik ez ateratzen, beraz, ba... bueno gure aldetik behintzat..

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, gure aldetik, Lehendabizi, nik usten dut nahiko arrazoi bota ditudala presazko izaeraz tratatzeko gai bat delako, ez?

Edonola ere edozein kasutan aurreratzen dut datorren plenorako ekarriko dugula baita ere plenoan ekarri behar delako eta ez Gobernu Batzordean aipatu dudan bezala espetxeratuta dauden senitartekoei ematen zaien dirulaguntzak.

Lehengo urtean ere Gobernu Batzordean aprobatuak izan ziren, eta horiek bai diktamen baten ondorioz ekarriko ditugun hona plenora datorren hilean. Hil honetan presazkoa, zergatik da?

Lehen aipatu ditudan arrazoi horiengatik. Eta bestalde diktamen asuntua dela eta ez dela eta bere garaian oposizioan, aurreko legealdian oposizioan geundenok, eskatu genuen tramite bat dela eta ez dela, horren harira garbi geratu dadin behingoz gauza bat, bere garaian oposizioak hori eskatu baldin bazuen, ez zen izan tramite huts bat jarraitu zedin, baizik eta plenoan eztabaidatu behar zen zerbait, aldeztatik batzordetan eztabaidatua izan zedin, hori zen arrazoa. Honen argumentazioaren ondoren nik aipatzen dudana da gai hau nahiko eztabaidatua izan dela aipatu ditudan fetxak eta datak eman ondoren eta hori dela garrantzitsuena. Nahiko eztabaidatua izatea eta aldeztatik batzordeetan zinegotziak garen guztiok, nahiko informazioa izan dezagun. Hori dela garrantzitsuena. Eta bere garaian hori aipatu baldin bazen ez zela izan tramite huts bat burutzeagatik, izan zela informazioa aldeztatik edukitzeagatik, gero ondoren plenoan eztabaidatu behar zenean, argumentu guztiak izan genitzan, ondo eztabaidatzeko, M. Eugenia

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Akordarazi nahi dut 2006ko maiatzean, oker ez baldin banago, pleno bat ospatu genuela Foronda kultur etxean, udaletxea obretan zegoela. Luze joan zen eztabaida, ez dakit, gaiak usten dut inportanteak zirela, eta bukatzerakoan Andoni Etxaniz izena zuen Izustarriko zinegotziak esan zuen, edo mehatxatu zuen, pleno hura baliogabetzea zeukala, ez gaiak ez zirelako tratatu batzordeetan, (urte mordoa daramat udaletxean eta ez naiz akordatzen noiz eraman genituen guk, aurretik aztertu gabeko gaiak pleno batera), ez horregatik

baizik eta batzordea izan zelako deialdia bidaltzen zen egun berdinean, baina arratsaldean, alegia, gaiak bai aurrez tratatu ziren, baina deialdia batzordea egin aurretik bota zen. Orduan, ez eztabaidatzeko aukerarik ez zegoelako, baizik eta ordu batzuren gorabeheran gauza bat bestea baino lehenago egin zelako eta alderantziz behar zuelako.

Orduan konturatu ginen gu behintzat, zenbateranoko garrantzia duten legeak eta erreglamendu normatiboak eta horrelako kontuak, baina nonbait garai batean garrantzia zuten haiek ba... haiek gaur egun galdu egin dute, eta Andoni Etxaniz, Talde Mistoko zinegotziak, orain esaten du berez gaiak urgentziaz sartzeari ohiko gauza bat beharko lukeela, oposizioak berorrek ere, Azpeitian dioten bezala, eskubidea ere baduela gaiak urgentziaz sartzeko, berez, alkateak aukera hori eskeini beharko lukeela, bai pleno batean eta bai hurrengoan ere, eta orduan gure galdera da: hain normala balitz urgentziaz gaiak sartzeari edo zeinek sartu ahal izango balitu, zer dela eta adibidez ezin ditzakegu sartu aurkezten diren mozioei mozio alternatiboak? Edo zertarako egiten diren batzorde informatiboetako diktamenak? Edo zertarako pasatzen zaizkigu gai zerrendak?...

Azken finean urgentziaz gaiak sartzeari, bapatekotasunez sartzeari, ohikoa balitz etorriko ginake ba.. bueno... ikustea zer gai tratatzen diren eta bertan inprobisatzera, ezta?

Eta dena den, ni ez nago batzorde horretan, Lide bai, eta badakit zerbait aipatu nahi duela eta berari laburrean. Honen inguruan esate daukana esan dezan lagatzen diot hitza,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Komentatzea bakarrik, zuk komentatu duzu Iñaki bai otsailaren hiruan tratatu zela gaia eta bueno, daukat hemen otsailaren hiruko batzordearen akta, hor bai jasotzen da, esaten da nola 2008ko oinarriak tratatu ziren eta 2009rako ekarpen batzuk egiten direla, batzarkide ekarpenak eta baita ere esaten da Alex Castorri pasako zaiola, berak ekarpenak egiteko.

Hortik, otsailaren hirutik oraingora, asteartean eduki genuen batzordera, ez da berriz gaia tratatu, eta batzordean ez genuen gaia tratatu, zeren batzordera nik ez nituen ekarri base hauek ze... ez nituen jaso, ze.. lanetan irtenda negoen, zuek eguerdian bidali zenituen ordubiak eta pikuan eta gaur egon naiz begiratzen eta ni ez negoen jasotzeko moduan, baino ez nik, ez teknikariak eta ez zeuk ez zenuten ekarri baseak, orduan otsailaren hirutik hona ze ekarpen edo zer... ba orain tratatu beharko ditugu edo ez dago... aurretik desde luego ez dira eztabaidatu, gai zerrendan ez zegoen eta gai zerrendatik kanpo komentatu zenuen zeukazula asmoa ba.. pleno honetatik pasatzeko, baino ze ekarpen egon diren edo ze... otsailaren hirutik hona ez da tratatu.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, ez, baina ekarpenak otsailaren hiruan izan ziren,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, bai eta esango dizut zein diren gainera ere,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Han esan zen “udaleko aholkulariari ere igorriko zaizkio bere ekarpenak egin ditzan”,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Egin ditzan, ez ditu egin. Zertarako tratatuko dugu.

Ekarpenak, Lide, eta esan zen eta esango dizut zein izan ziren. Ekarpenak izan ziren laugarren puntuan, es ke gertatzen da otsailaren hiruan gainera ere akta horretan, nik usten dudala, ez zinela azaldu,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ez nintzela azaldu, badakit ez nintzela azaldu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Horregatik. Hor laugarren puntuan azaltzen da “C” puntuan Estatu mailan eta hori da aldaketetako bat, elkarteen eta entitateen erregistro inskripzioko ziurtagiria (lehenago Europa mailan jartzen zuen)

Eta “F” hori berria da, lehen ez zegoen eta guk gehitu egin genion otsaila hiruko batzorde horretan Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Aldundiarekiko zerga-betebeharren berri izatea egiaztatzen duen agiria, eskatzen dugu.

Horiek ziren egin genituen berrikuntzak 2008ko oinarriei aldaketak, baino hori tratatuta dago,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ondo esan duzun bezala, ni ez nintzen batzorde horretara joan, baino bai akta irakurri nuen eta desde luego negoen zain Alexek edo zeinek ekarpenak behintzat nonbaiten ezartzeko. Ze... hemen ez daude jarrita,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oinarrietan? Jarrita daude,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Oinarrietan bai, baino ez aktan, ez dakit zer aldatu zen. Orain arte, atzo arte, astearterarte. Orain esan didazulako.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Begiratu 24. akta ez daukat, baino 24. akta aprobatuta dago eta aktak egiten ditu Pili Alberdik, ba...bueno 24. akta etorri baldin bazinen seguru asko 23.na aprobatuko genuen. Gehiago espezifikatu behar dela hori akten arazoa da, horretarako aurrengo puntu bezala jartzen da beti aktak onartzen diren edo ez diren. Jarri behar zuela zein ziren aldaketak ba.. igual bai, orain konturatzen ni ere ba.. igual jarri behar zituela, baino bueno.. bera egon ez baldin bazen ezin zuela aprobatu..

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez baldin bazara bilera batean egon, ezin duzu akta gaizki edo ondo dagoen esan,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Azken finean aktaren erredakzioaren arazoa dakarkit. Ez besterik. Es ke... beste dena esan duzun dena...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, dakarzu aktaren erredakzioaren arazo bat..., Lidek ezin izan zuela egun horretan batzordera joan..., azkenengo batzordean tratatu duzuten batzorde horretan gaia ez dela gai-zerrendan sartu..., planteamentua egin dela batzordean gai-zerrendatik kanpo..., en “Ruegos y Preguntas” edo “Varios”, eta ez dela diktaminatu..., eta atzo bidalitako e-mail baten bitartez ba... azaltzen diguzuela presazko izaera duenez zuen ustetan, (ez gara sartuko horretan akaso bai, akaso ez), hori ba... plenora ekarriko duzuela... eta dela ba... ez dakit, zenbatgarrengo aldia berdina gertatzen dena, eta gauza batzuk ikaragarritzko inportantzia edukitzen dute batzuetan baina aldiz beste askotan nonbait, batez.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, ez, hain zuzen ere bidali baldin bada, lehenago, hogeitalau ordu lehenago da informazio guztia emateagatik eta gai ordenetik kanpora tratatu baldin bazen, da esateko presazko izaera planteatuko zela hemen.

Zergatik presazko izaeraz? Aldez aurretik eta berrogeita zortzi ordu lehenago batzorderik ez zelako egon, non diktamena aprobatzerik ahal izan genuen. Hori dela eta, eta nola diktamenik ez zegoen batzorde horretan esan zen presazko izaera aipatuko zela, besterik ez. Baina beste argumentu guztiak.....

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Baina otsailaren hirutik hona, egon da denbora gai-zerrendan sartzeko, ez?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Arrazoia duzu. Otsailak hirutik hona eta juxtu da errekonozitzea, egon da eta ez dugu sartu. Gauzak diren bezala. Baina nik usten dut nere hasierako esplikazioan esplikatu dudala, otsailak hiruan onartzen dira eta gurea izan balitz, gurea izan balitz ardura egingo genukeen gauza bakarra izango litzake beste batzorde batera deitu, akta egin, barkatu, diktamena egin datorren hilekoa egingo dugun bezala eta datorren hilerara eraman.

Baina ahaztu egiten zaizute eta hasieran nik usten dut urgentzia eta presa hortik datorrela, beste faktore bat dagoela, eta faktorea dela bitarte horretan guri etorri zaigula ba.. faborez eta neri iruditzen zait nahiko arrazoi badela ba.. musu-truk aritzen den elkarte batean eta batez ere hirugarren munduari laguntzen ari den elkarte batean kreditu pertsonalak eskatzen etbr... ba.. bueno, ba.. gutxienez iruditzen zait nahiko argumentu badela presazko izaeraz eta konsensua duen ordenantza bat eztabaidatzeko hemen eta nahiko ikusi izan den ordenantza bat izanik, ba.. nahiko arrazoi badirela hona ekarri eta eztabaidatu eta onartzeko.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Nik ere hitza hartu nahiko nuke, zeren ba.. bueno Andoni Etxaniz izaten jarraitzen dudanez, eta oposizioan ere gauza batzuk komentatu nituen eta itxuran ba.. zerbaitetarako balio izan zuten, zer ikasia edo eman zuen. Bere garaian guk planteatu genuen kexa izan zen eguneko aztergaia asteartean igorri zela eta eguneko aztergai horretan tratatu beharreko gai bat asteazkenean, ogasun batzordean asteazkenean tratatu beharreko kontu bat zela, beraz, ez ordu batzuetako diferentziagatik, asteartean bidali zen eguneko aztergaia eta eguneko aztergai horretan zegoen barneratua edo sartua definitiboki edo azkenengo forma ematen zitzaion aurrekontuei ba... eta horiek asteazken batean aurkeztuko ziren juxtu, plenoaren aurreko egunean, usten dut aurrekontuak zirela baino gaia aurreko egunean tratatu eta hurrengo egunean. Eta gaiak gutxienez plenora eramateko bi eguneko aurrerapena eduki behar zutela tratatu ahal izateko eta eguneko aztergaiari sartu ahal izateko.

Momentu horretan eguneko aztergaiari sartu ziren eta ohiko bezala tratatzeko moduan eraman ziren eta hori ezin zen egin, gu orain hemen planteatzen ari gara da ba.. ezohiko bezala edo bozkatzea, eta bozka horrek emango du, emango duena, tratatuko da edo ez. Besterik gabe. Nik inondik inora esan ez dudana eta esango ez dudana da, eta neri iruditu zait hori ulertuarazi nahi izan dela ba.. bueno ohiko plenoaren eguneko aztergaia izan daitekeela:

- 1.- Aurreko aktaren onarpena,
- 2.- Ez ohiko puntuak edo tratatzeko, eta
- 3.- Varios.

Ez, noski, ekarri behar direla ahal den neurrian puntu guztiak diktaminatuak eta tratatuak. Puntu hau tratatua dago behar bezala eta behar zen aldi guztietan eta horregatik ekartzen dugu eskari-galderen aurretik eta horregatik bozkatu beharra dago.

Eta bueno, ni besterik gabe bozkatzera pasa nahiko nuke, zeren neri behintzat gai honek gehiago ematen ez duela iruditzen zait, ez dakit,

JON GIL, IDAZKARIA.: Adierazi nahiko nuke, bozkatzera pasa baino lehen, gehiago osoaren bitartez onartu behar dela asuntoa lehendabizi, gero tratatu ahal izateko,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai, presazko izaera tratatu behar dela, bai. Bozkatzera pasako gara, beste norbaitek ez baldin badu ezer esatekorik nahi, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez da aurrenengo aldia, protestak eta arrazoiak bota eta alde botatzen dugula, baina benetan geroz eta gehiago kostatzen zaigu. Eta kasu honetan Darahli elkarteak dela edo beste elkarteren batek presa baldin badauka ba.. tratatu dezagun. Baina azken finean guzti honek esan nahi duena da, ez hainbeste... bueno ez hainbeste bai, bai, baita forma aldetik asuntoak inportantzia badaukadala, baita ere udalak bere gestio ardurak nonbait ez dituela behar den bezalako fundametoarekin betetzen eta akaso ba... gauzak hobeto egingo balira ba... aitzaki gutxiago egongo litzatekeela.

Eta Andoniri esan ba... asteazkenean edo tratatu zen gai hura aurretiaz ere beste askotan edo batzuetan gutxienez, aurreko batzordeetan ere tratatua bazegoela, bada ez bada ahaztuta ote dagoen, edo.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Gai hau bezalaxe, Emiliano



SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Bien, nosotros bueno, yo, porque no está aquí la compañera Paloma, me voy a abstener por una cosa muy concreta, no quiero decir que no, para no perjudicar en la medida que sea posible una necesidad en cuanto a... por el hecho de lo que se trata, me refiero en cuanto que es una ayuda internacional que siempre es necesaria. Pero tampoco quiero decir que sí, sino que me voy a abstener, como una pequeña queja, puesto que no tengo intención de dificultad para... en la medida que sea posible y que se tenga en cuenta estas situaciones de emergencia, solo vengan como he dicho anteriormente por unos casos muy concretos y en momentos muy puntuales, de lo contrario estaríamos desvirtuando realmente cual es la misión del pleno, la misión de comisiones, y demás, si tienen que venir en base al Reglamento que no digo que esto sea ilegal lo que estamos haciendo, sino en base al Reglamento que venga y por lo tanto evitemos estas cuestiones en la mayor medida posible, por lo tanto me abstengo,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Estoy de acuerdo, también, eh?.. creo que la argumentación es la suficiente como para tratar el tema de –presazko izaera- que no me viene en castellano como es –la urgencia del asunto- no? y he tratado de explicarla y de motivarla, que creo que la tiene, pero bueno... estoy de acuerdo en todo caso que no tiene que ser una regla general evidentemente sino una excepción bien justificada que creo que es el caso, Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Vamos a aprobar la urgencia del caso,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua Aralarrek aldeko botua ematen du, Talde Mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Talde mistoak aldeko bozka ematen du, eta bueno... ez du ulertzen alderdi sozialistaren kexa, zeren ba... Gizarte Zerbitzuetako batzordeetan alderdi sozialista legealdi honetan ba.. gu nahi baino gutxiagotan etortzeko aukera eduki du, eta etortzeko aukerarik ez duen Gizarte Zerbitzuetako batzorde baten funtzionamenduaren inguruan ba... opinioak emateko ba... onena izango litzateke bertan egotea eta bertan bere iradokizunak eta ekarpenak egitea, baino zoritxarrez ezin dute gehiagotan etorri, baino guri exigentzia maila eta guri ba.. gure

egunerokotasuneko lanean eskaerak egitea ondo dago, baino guk ere noizean behin bat edo beste egin beharko dugu, inongo ba... ez dadila gaizki ulertu, baino neri behintzat ba.. guri kexak presentatzea ulertzen dut, baino guk ere gure kexak noizean behin ere egin beharko ditugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, beraz, PNV-ek ez dakit, azkenean zer bota duen, ah! Alde bota du, Aldeko hamaika botu eta abstentzio bat,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoa; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 1 PSOE;

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoa; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 1 PSOE;

LEHENENGOA : GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEETAN LANKIDE-TZAPROGRAMAK, GIZARTE-SENTSIBILIZAZIOKOAK ETA EKINTZA HUMANITARIOKOAK DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK (2009. URTEA)  
Gaia tratatzeko PRESAZKO IZAERAZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR LA URGENCIA para tratar el tema de BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCION PARA FINANCIAR PROGRAMAS DE COOPERACIÓN EN VÍAS DE DESARROLLO, SENSIBILIZACIÓN SOCIAL Y ACCIÓN HUMANITARIA (AÑO 2009)

Eta bueno orain botatzera pasako gara ordenantza bera, eh? ... PNV-ek?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Guk ordenantza honi, sartu nahiko genieke aldaketatxo bat, zeren ordenantza horrela ikusita, ikusten dugu dagoela bakarrik zuzenduta, entidade, erakunde eta instituzioak; horrek suposatzen du ba... orain artean izan direnak eskatzaile ba... nik esango nuke nagusietakoak, bat Antonio Zubia eta bestea Ramón Gurrutxaga ezingo luketeela hemendik aurrera dirulagunzarik eskatu; orduan gure planteamentua da hauei nolabait kobertura bat eman behar zaiela eta horrela soilik jartzen baldin badugu, ez batak eta ez besteak

ezingo luketeela dirulaguntzarik jaso. eta nolabait ba... bueno hauek, gure planteamentua da, justifikatuko balukete ba.. erakunde baterako lana egin dutela edo ba.. ez dakit, Ramón Gurrutxaga Bolibiara dihoa eta han etxe baten egiten du lana, erakunde batentzarako egiten du lana eta Antoniok Venezuelan beste etxe baten izenean, elkarte baten izenean egiten du lana; justifikazio horiek jasoko baziren hemen udalean, nahikoa izango zela ba.. dirulaguntzak banatzeko hauei ere.

Ikusten dugu horrela oso zorrotzak garela Gizarte Zerbitzuetako gaietan, baino beste arlo batzuetan ez gara hain zorrotzak eta alboko atean ba... kulturen ez daukagu inongo problemarik pertsona fisikoei dirulaguntzak banatzeko, orduan gauzak erregulatzen joan behar dira, ba... deneri ez? eta nik usten dut hauei kobertura emateko bide horretan, erakunde baten babesa edo erakunde baterako lana edo justifikatzen baldin badute, nahikoa izango zela,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ados nago, eh? Aipatu genuen batzordean hitz egin genuen horri buruz eta ados nago, gertatzen dena da ez dakit ze neurri arte hori zera... batzuetan jartzea posible al den? aipatu genituen beste arrazoi haietatik.

Edozein kasutan nik egingo nukeena da, eta nik arrazoia ematen dizut ba... bueno. 2008ko eskaerak ere usten dut Pilik esan zuenez baita ere oinarri hauen arabera egin ziren eta azkenean Antoniori ez zitzaion, oker ez baldin banago, dirurik eman, orain dudan jarri nauzu baino usten dut ezetz esan zela batzordean, edozein kasutan bota behar duguna hau da, aldaketa nik usten dut batzordean zuk proposatzen duzun aldaketa berriz ere tratatuko dugu eta ekarri behar baldin bada berriz ere ordenantzaren aldaketa ba.. ekarriko dugu, baino dirua ahalbideratzeko pentsatzen dut onartu beharra egongo dela dagoen bezala, aldaketarik eman gabe jakin gabe gainera ere ze... erredakzio edukiko duen zuk esaten duzun eskaera horrek nahiz eta –en el fondo- ados egon, ez?

Eta gero ere beste gauza bat, Kulturen ere aipatu nuen, nik, batzordean iruditzen zaidala eta berez bere garaian kulturako zinegotzia izan nintzenetik baita ere eta pentsatzen dut Pilik gaur egun ere hori aitortuko duela, Kulturen aurrean eramaten diren ekimenak, ez dira... arautzeko zailo izaten dira horrek ez du esan nahi arautu behar ez direnik eta -de hecho- gainera arautzen ari dira, baino egia da ekimenak askoz ere aktibuo, askoz ere... beste erabateko ekimenak izaten direla eta bueno... orain ez naiz hemen plenoan hemen jardungo hitzegiten, baino batzordean aipatu nuen proposamenak kulturen mila daude, ez? Eta Gizarte Zerbitzuetan gauzak askoz ere, ba... bueno alde zuzenetik jakinekoak izaten dira, ez? Orduan, bueno, ez dakit, edozein kasutan iruditzen zait, -a lo dicho- zuen

proposamenak idatziz jasoko balitzazkete, denok dakigula ze onartu beharko genukeen, emendakin modura baino bestela, ba... ez dakit, LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Bueno, nik ez dakit, hori izango litzakeen oztopo orain dirulaguntza Saharako hauei banatzeko? eta nere galdera da, Nola dakigu hemezortzi mila direla? Banaketa egina dago? Edo hamar mila direla?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, ez. Nik esan dut beraiei, beraiek aurrekontu bat aurkeztu zuten, non aurrekontu horren arabera bidaiak gastu bat suposatzen zuen eta horren arabera hamar mila euro falta zitzaien, beraiek udalari eskatzen zioena, lehen ere aipatu dut, ordenantza hauen arabera berriz ere ikusi beharko litzake, baina Pilik proiektu hura ikusi zen, proiektua zen bi urterako, Darahlina, 2008-2009 tope bat dago ordenantza hauetan hemezortzi mila euro dena eta 2008ko dirulaguntzak eman ziren egun hartan, Pilik ere aipatu zuen, aztertu zuelako -desde luego- ordenantza kunplitzen zituen zera bakarra, beste guztietatik gorago, Darahli elkarte zela; eta iruditzen zitzaiola proiektu hori bere osotasunean ikusita -desde luego- bai merezi zuela denak ematea, zeren oinarriko puntu guztiak kunplitzen zituela erraz,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Zer ulertu behar dugu, gaur ematen diogula ordenantzari behin behineko onarpena eta emendakinak edo alegazioak egiteko epe bat badagoela? Behin betikokoa egin aurretik?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Neri Liobak adierazi zidanez, hau plenora ekarri behar zen eta nik ulertu nion behin betikoz onartutzat ematen zela, ulertu nuen, eta agian ez da behin betikoz izango baizik eta behin behinekoz,

JON GIL, IDAZKARIAK.- Ordenantzen tramitazioak, behar du hasiera onarpen bat, 30 eguneko jendaurreko fase bat eta gero behin betiko onarpena,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, beraz, behin behinekoa izango litzake, nola aurreko urtean Gobernu Batzordetik pasa zen eta ez zen behin behineko izan, baizik eta behin betikoz, nik ulertu nuen behin

betikoz izango zela, baino tramitazio hori baldin bada, ba... bueno behin behinekoz behintzat ia hasiera eman eta gauzak aurreratzen joan. Eta behin behinekotasun horretan 30 eguneko epea dagoenez, zuk egin duzun planteamentu hori orduan txertatzea egongo litzake batzordean aipatu ondoren,

JON GIL, IDAZKARIA.: Ez, izango zen orain hasierako onarpena,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Hasierako onarpena, baina guk orduan alegatzen dugu eta plazoak jarraitzen dute martxan.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Hurrengo batzorderako ekartzeko aukera edukiko zenukete zuen alegazioari forma eman da, eta berriro ere hurrengo hileko plenora ba... alegazioa eduki duenez behin behineko onarpena izan duen ordenantzak, behin betikoa izan aurretik, alegazio horri erantzuna eman beharko zaio; adosten baldin badugu alegazioa ba... nola ez; ba... aintzat hartzea izango litzateke eta zuek komentatu duzuten zabaltasun hori ematea egoki baderitzogu, ba... emango litzaioke. Horretarako dago batzordea, bertara ekarri beharreko ekarpenak ekartzeko animatzen zaituztegu eta tratatuko dugu.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Beraz, onartzen da behin behinekoz, PNV-k egin duen alegazioa, batzordean aitatuko dugu, gainera ere -por cierto-, aurreikusten dut inolako arazorik ez dela egongo adostasun batera iristeko, noski, eta 30 egun hauetan berriz ere gaia tratatu, nahiko tratatu ez, eta berriz ere tratatuko dugu eta gero ba... ondorengo plenoan behin betikoz onartu, Beraz, gaia horrela bozkatzera pasako gera, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aldekoa,

ALKATE-LEHENDARIA.: Aldeko botua, PSOE-k?

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: También a favor, aunque voy a aprovechar la contestación a Andoni porque sino luego tengo que tomar la palabra otra vez.

El único responsable de no asistir a las comisiones desde luego si no asisto a determinadas comisiones soy yo y nadie más; eso está claro y eso lo admito sin ningún tipo de problema, otra cosa es que tenga que contar aquí, por qué vengo; por qué dejo de venir que no es el caso, por lo tanto no lo voy a hacer.

Pero sí hay una cosa que es clara, el Reglamento de los Plenos no es responsabilidad mía es responsabilidad de todos y principalmente de la comisión de Gobierno, por lo tanto el hecho de que yo no venga a una comisión o deje de venir, no quita ni pone nada, para que vosotros como Comisión de Gobierno, digo vosotros en conjunto, tengais como prioritario precisamente llevar a cabo ese reglamento y actuar en consecuencia con él y hacer las cosas de acuerdo a lo establecido en el mismo, por lo tanto yo si vengo o dejo de venir, ni quito ni pongo para que eso sea así y se cumpla como es debido. No entiendo por qué la crítica, se me puede criticar el que pueda venir o no venir, pero en base a si se cumple o no se cumple el reglamento creo que está demás,

ALKATE-LEHENDARIA.: Ezker-Batua Aralar?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Talde Mistoak?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botua, eta erreglamendua uneoro kunplitzen dela bermatzeko horretarako daukagu idazkaria eta kunplituko ez balitz ezingo genituzke erabaki hauek hartu, nola ez!.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: eta EAK ere aldeko botua, beraz, aho batez onartzen da behin behinekoz ordenantza,

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 botu (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoak; 1 PSOE; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak:

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 (4 PNV; 2 EB-Berdeak Aralar; 3 Talde Mistoak; 1 PSOE; eta 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENENGOA : GARAPEN  
BIDEAN DAUDEN  
HERRIALDEETAN LANKIDE-TZA-  
PROGRAMAK, GIZARTE-  
SENTSIBILIZAZIOKOAK ETA  
EKINTZA HUMANITARIOKOAK  
DIRUZ LAGUNTZEKO  
DEIALDIAREN OINARRI  
ARAUTZAILEAK (2009. URTEA)  
AHO BATEZ ONARTZEA,

PRIMERO: APROBAR  
POR UNANIMIDAD las  
BASES REGULADORAS  
PARA LA CONCESIÓN DE  
SUBVENCIÓN PARA  
FINANCIAR PROGRAMAS  
DE COOPERACIÓN EN VÍAS  
DE DESARROLLO, SENSIBI-  
LIZACIÓN SOCIAL Y  
ACCIÓN HUMANITARIA (AÑ  
O 2009)

Eta azkenik, Eskari-Galderak, norbaitek zerbait esatekorik, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, gai bateren inguruan galdera bat daukagu, Gizarte Zerbitzuetako batzordetako gai bat da, hain zuzen, eta da Branka Zentroaren kudeaketa lehiaketaren inguruan egiten dugun galdera bat.

Pleguak atera ziren urtarrilean eta plegu horien arabera esleitu egin zuen Gobernu Batzordeak, lehiaketa, Brankako zerbitzuen lehiaketa.

Enpresa bakarra aurkeztu zen “Eulen” izena duen enpresa eta lanean hasi zen, batzordean gerora esan zen bezala, kontratua sinatu aurretik. Eta hori horrela orain dela hilabete t´erdi edo hilabete inguruko, batzorde batean egin zenuten aipamena izan zen, Eulen enpresa honek, parte hartu zuen enpresa bakarra, ez dezagun ahaztu, ba... ez zegoela edo ez dagoela konforme pleguen bitartez eskeintzen zaion kontratuak daukan kosto ekonomikoarekin, udalari suposatzen dion diru horrekin, hor desfase argi bat badagoela, hain zuzen etxez-etxeko laguntza zerbitzuak eragiten duena, eta oker ez baldin bagaude argudiatzen du oraindik ere sinatuta dagoen edo ez dagoen kontratu horrek desoreka ekonomiko garrantzizko bat sortzen diola enpresari, hogeita hamabost mila euro ingurukoa eta eskatzen dio udalari zulo hori estaltzeko.

Nonbait zuloaren arazoia, zerbitzua oraindik ere ematen duten eta etxe honetako, udaletxeko, langile diren kosto laboralak eragiten dutelako. Gainera auditoria bat egin omen da (edo eskatu dute behintzat) eta badirudi batzordean esan zenaren, esan zenutenaren arabera, udalak justifikatua ikusten duela enpresa honen eskaera hau.

Nahiko genuke galdetu eta nahiko genuke informazio zehatza eduki guzti honen inguruan, alegia, sinatuta dagoen hitzarmena edo ez, alegia, udalak

bere gain hartu duen desoreka ekonomiko hori. Guri harridura sortzen digu beste arrazoi askoren artean, ba... oker ez bagaude, ordenantza, udal ordenantzak onartu ziren plenoan luze eztabaidatu genuelako etxez-etxez zerbitzuaren tasari buruz, % 30etik gora igotzen zen tasa bat. Eta alkate eta batzorde buruak argudiatzen zuen igoera hori, hain zuzen, zetorrela aurretiaz zerbitzu berdina kudeatzen zuen orduko enpresak, behin eta berriz demostratzen zuelako ba... hori, desoreka ekonomiko bat bazegoela eta zulo hori estaltzeko.

Bestalde, lehiaketa bat egiten denean eta enpresa bat bakarra aurkezten baldin bada, ze zentzu dauka handik hamabost egunetara, behin esleitu zaionean eta lanean hasi den horretan, esateak “¡Ai! Oraintxe konturatu gara ezin dela zerbitzu hori pleguetan jartzen duen kopuruarekin eskeini”? eta hori baino..., nik usten dut guzti honek -desde luego-, gure aldetik usten dugu esplikazio sakon bat merezi duela. Zinegotzi guztiok jakin behar dugu, hau nola dihoan, eta akaso baita herriak ere.

Gainera, badakigu pleguetan agertzen den testu baten arabera, udalak nonbait egiten duen, edo Udal Gobernuak egiten duen interpretazioa, enpresaren aldekoa dela; eta guk irakurtzen dugu testu hori eta inondik inora ez dugu interpretazio hori atera daitekeenik ulertzen, aber nola den...,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, lehendabizi hori, gai polemikoa denez, nik, bueno polemikoa esan nahi dut, gai luzea denez, nik hori batzorde baterako lagako nuke, lehendabizi, datu guztiak emango dira.

Baino, bi gauza kontratua sinatutako dago? Bai, sinatuta dago eta bi Udalak estaltzen du enpresak daukan galera? Ez, beraz esan den guztia alferrikakoa da eta esplikazioa eman da dago, eh?

Badakit, zergatik esan duzuten hori, batzorde batean aipatu zelako horrelako zerbait eta Eulenekin hitzegiten ari ginen momentu hartako konbertsazio bat edo gure arteko ikuspuntuak adierazi nituen, garbiak eta transparenteak direlako.

Baina berriz diot, kontratua sinatuta dago eta udalak ez du estaltzen enpresak eduki dezakeen galerik,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta orduan zer da udalak ordaintzen duena?

Eta hain erraza baldin bada erantzuna, zer dela eta erantzuna “luzea eta polemikoa” da eta “batzordean soilik” emateko modukoa?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez, luzea eta polemikoa ez dut esan.



Eta beste gauza batzuren artean udalak estaltzen duena delako eta ez dut inor aspertu nahi, baina etxez-etxeke zerbitzuetan dabilen udal langileen kostuen diferentzia udalak estaltzen du, hori bai, baina galera, enpresaren galera, ez.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Texto de los pliegos de adjudicación del contrato: “El coste del personal propio del ayuntamiento de Zumaia será a cargo de la empresa adjudicataria. Se acompaña también relación nominal del personal propio con sus niveles salariales correspondientes al año 2008. La liquidación de dicho coste se convendrá en la firma del contrato con la empresa adjudicataria”. Es decir, yo creo que está bien claro que los costes del personal propio del ayuntamiento serán de cargo de la empresa adjudicataria, sean éstos cuales fueren, pero es que, además, no es un concepto que queda al albur de lo que vaya a suceder, sino que en el momento en que alguien concursa presenta su oferta; mucho más, firme el contrato, o se pone a trabajar en el servicio, sabe exactamente hasta el céntimo de euro a cuanto asciende el costo salarial de esos trabajadores a los que se alude en el pliego, por lo tanto, no entendemos de que manera el ayuntamiento puede interpretar que a los quince días de firmado el contrato con la empresa, única empresa concursante y adjudicataria, puede convenir un pago extra en base a un concepto que de ninguna de las maneras existe.

Y cuando se dice que “se convendrá la liquidación” no se quiere decir que se negociará si es mucho o si es poco o cuanto es, sino lo que se hará es llegar al acuerdo de cual será la manera del pago o del cobro de ese montante”,

ALKATE LEHENDAKARIA.: No, la interpretación no es ésta, la interpretación es la contraria. Entre otras cosas porque la empresa anterior nos dijo bien claro que iba a dejar el servicio porque los números no le daban y tanto es así que la empresa anterior ni se ha presentado.

Y segundo, efectivamente, el quid de la cuestión, no está tanto en la primera frase como en la última que tú has comentado a la cual se agarra la empresa, y por último, efectivamente a los quince días de haberse presentado; que la única empresa que se haya presentado no sepa los números que es una cosa que se les ha dicho a ellos, no sepa los números y qué dan los números? Pues es... como para que... en fin... verdad? eso es lo que se les ha dicho a ellos eh?

Pero segundo, estamos hablando de un servicio que es el servicio de atención de los centros de día, donde todos los días van pues una determinada gente con todo lo que ello acarrea y no estamos hablando de

cualquier servicio que podamos hacer nada aquello que luego nos puedan acusar de una irresponsabilidad por un servicio tan básico como es la prestación del servicio que se le dá a las personas necesitadas y mayores de nuestro pueblo.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, nik ere hitza hartu nahiko nuke, lehendabiziko kontua Josune zerbaitetarako etorri da eta bueno lan pixka bat aber ematen diogun, itzuli dezala, faborez,

Eta bai komentatu nahiko nukeena da; baino ez hartu gaizki, benetan, ez dakit zergatik dena gaizki hartu beharra dagoen? Euskaraz egitea eskatzen den, besterik gabe, ez hartu gaizki, ez dakit.

Badirudi, ez dakit, enpresa bakar bat aurkeztu izana horrenbeste matizatu da eta berriz ere resaltatu da, bueno udaletxe hontan esleipenetan enpresa bakarrak aurkeztu dira orain eta beti, nik usten dut, beste kontratu batzuk ere enpresa bakarra aurkeztuta esleitu izan dira eta zerbitzuak eman dira enpresa bakarra aurkeztu direnean eta hori horrela izanik, baita ere beste kontratu batzuk esleituriko prezioa %20an igo da legeak horrela ahalbidetzen duelako nahiz eta bakarra aurkeztu zen, enpresa horri kontratua sinatu zenerako %20ko igoera eskatu zuen eta eman zitzaion, beraz, zuek orain hemen, ez dakit, horren arrarotzat edo ba... bakarra aurkeztea eta kontratua sinatu aurretik edo ez dakit zer..., ba.. bueno horiek gertatu dira, gertatzen dira, eta gertatuko dira, lehen gertatu zen lehengo legealdietan eta hurrengo legealdietan ere gertatuko dira; bakarra aurkeztu eta gero zenbakiak agian gehiegi ajustatu zituela negar egiten etorri, negoziatu, eta % 20ko igoera lortu zituzten batzuk aurreko legealdietan, eta orain hemen, ez dakit, horrenbesteko harridura, informazioa noski emango dela, guztia, eman behar den lekuan, horrela egiten baita, Eta bueno Josuneri, barkatu, baino lan pixka bat egin beharko duzu,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Ez, esan duzunean, bakarra aurkeztu zela eta aurretik zeudenak eta numeroak ez zutela ematen, eta... es ke igual pleguak gaizki daude, es ke igual ez zen ondo kalkulatu nik ez dut esaten hori, ez baldin baziren aurkeztu da ba...igual numeroak gaizki zeudelako, igual plegu berriak atera beharko dira kalkuluak ez zeudelako ondo eginak. Baino non dago konkurrentzia? Eta non daude..?

Ze... azkenean oso erraza da, aurkezten naiz eta hamabost egunean udaletxera nihoa negar egitea; eta udaletxeak ematen dit behar dudak dirua, baino hori nik usten dut iruzurra dela, sartzen baldin bazara sartzen zara kondizio horietan, besteak ez baldin badira sartu ez direlako sartzen eta numeroak ez dutelako ematen, orduan...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Iruzur hori.... orain iruzur hitza erabiltzen duzu? eta jokabide hori aurreko legealdian eman zen, berdin berdin-berdina; bakarra aurkeztu zen, prezio bat eman zuen eta gero ondoren legeak ahalbidetzen duen % 20ko inkrementua eskatu zuen, hor badaude, joko eremu batzuk eta horkila batzuk ba... baldintzak modu haundi batean ez aldatzeko moduan, ba... prezioak renegoziatu daitezke. Hori eman zen ondoren eta orain ematen da. Eta ez dakit, orain iruzur hitzak erabiltzen dira.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta nik ez dakit zer eman zen, eta ze arrazoiengatik eman zen, denok dakigu lehiaketa bat esleitzen denean % 20a bitarteko prezio moldaketak egin daitezkeela, baina ez dena ontzat ematekoa da moldaketa hori, oraintxen lehenago irakurri dudan erderaz, gasteleraz, irakurri dudan parrafo horretan oinarritzea. Zeren hori irakurtzen duen edonork daki, hor ez dagoela enpresaren aldeko interpretazioak egiteko marjenik; alderantziz, parrafo horrek egiten duena da hain zuzen, ezarri zein baldintza ekonomikoetan jokatu behar duen lehiaketan parte hartzen duen enpresak, eta hortik juxtu kontrako, eta udalaren kontrako interpretazioa ateratzea, iruditzen zaigu, hori bai, eta gutxienez harrigarria,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ba..... ez dakit, udalaren kontra den zerbitzua ematea edo zerbitzua etetea, eta eta beste gauza bat,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND: Udalaren kontra....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez barkatu, eta beste gauza bat, iruzurrik ez dago, iruzurra egongo litzake edozein kasutan udalak esango balu, udalak estaltzen duela enpresak dauzkan galerak, baina udalak ez du hori egiten.

Udalak egiten duena da ezberdintasuna ordaindu udaleko langile eta enpresako langileen artean dagoen ezberdintasuna ordaindu eta hori oinarritzen da hor dagoen esaldi horretan. Eta esaldi hori jarri zen, ez bakarrik, zuk esaten duzun interpretazioen arabera, badakigu zergatik jarri zen, beste gauza batzuren artean Biharkok eskatzen zuelako % 50eko igoera bere garaian, eta guk % 50a ez genuen igo % 20a. Eta gehiago esango dizuet % 20a igo genuenean eta zuk orain aitortzen duzu pleguak agian ez direla ondo egongo? Ordenantzak aprobatu zirenean –pusisteis el

grito en el cielo- esaten dena, esanaz nola daiteke %20a igotzea. Eta orain aitortzen duzue agian pleguak ez daudela ondo eta % 20a ez; agian % 50a igo behar genuela eta orduan ordenantzetan aprobatu genuen argumentu horiek, non geratzen dira, zuen argumentu haiek.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, guk ez genuen esan pleguak ondo edo gaizki zeudenik ordenantzak aprobatu zirenean eta gu kontra agertu ginenean etxez-etxeko zerbitzua % 30ean igotzeko. Guk esaten genuen ikaragarritzko eta itzelezko eta gehiegizko igoera iruditzen zitzaigula herritarrek ordaindu beharrekoa, eta zuk, akordatzen bazara, horri erantzuten zenigun esanaz zuen datuen arabera oso pertsona gutxi edo bakan batzuk bakarrik zirela hori dena ordaindu beharko zuteenak.

Gu ez ginen ari esaten, kasu hartan, horrek zer ikusirik zeukanik pleguen bitartez enpresak kobratzen zuten edo kobratu beharko luketeenarekin, Ez! Bi kontu desberdin; eta parrafo hau, zuk esaten duzun bezala ulertzen duenik ezin sinistu badagoela. Juxtu parrafo honek esaten duena da, eta taxatiboki markatzen duena da, zein den lehiaketan parte hartzeko baldintza ekonomikoa udaletxeko diren langileen soldatei buruz. Hortik, juxtu, lehenago esan dudana bezala, kontrako interpretazioa egitea ba... zuk egiten duzu, baino gainontzeko guztiok, nekez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, nik bakarrik ez dut egiten eh!. Eta udaletxe honetan arlo juridikoa bermatuko duena ez naiz ni, eh! Hori lehendabizi eta bigarren guk ez duguna egingo da arduragabeki jokatu baizik eta alderantziz, arduratsu jokatu, eta zerbitzua eten ez, baizik eta zerbitzua eman eta horrelaxe usten dut jokatu dugula, eta hirugarren esan dudanean Batzordean aipatu behar den gai bat dela ba... beste gauza batzuren artean beste gauza bat ere badagoelako hor jokoan, eta ikusi dugu eta aipatu dugu, ikusi beharko dela etorkizun batean udaleko langileak diren horrekin zer egin ere hori hitzegin beharko dela eta ikusi beharko dela eta hori aipatua izan da baita ere Gizarte Zerbitzuetako batzordean eta aipatzen jarraitu beharko dugu baino ez zait iruditzen plenoko arazoren bat denik, baizik eta Gizarte Zerbitzuen barruan gaudenak eta dakigunak zer gertatzen den, eztabaidatu behar dugun zerbait dela. Ze... bestela denok aspertu egingo gara, hemen.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Inork ez du esan, inork ez du esan, gaurko pleno honetako gaia denik zerbitzu hori prestatzen duten langileen izaera eta horien jarraipena edo ez jarraipena.

Kontu hori erabat kanpo geratzen da momentu honetan izpide dugunarekiko, erabat desberdina baita.

Eta zuek “arduraz jokatzeko duzue”, “zerbitzua bermatzeko duzuela”..., ez!

Zuek arduraz jokatzeko zenukete zerbitzua bermatuz, lehiaketaren txukuntasuna gordeko bazenute eta gainera udalaren interes ekonomikoen defentsa egingo bazenute, dena erabatean,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Nik usten dut udalen interesen defentsa egin dugula beste gauza batzuren artean, ez dugunean % 50a igo bere garaian eskatu zen bezala bat, eta bi guk bermatu dugula lehiaketa publikoa eta bestela ez ginake hemen egongo, bestela beste gauza bat egiten ariko ginake eta gaia baldin bada eta zehatza baldin bada eta zuek aipatzen duzuen gaia bakarrik tratatu behar baldin badugu eta gai kolateralik ez, ba... da hasieran esan dizudana kontratua badago?, Bai,

Udalak enpresaren galera posiblea estaltzen du? Ez.

Hori baldin bazen jakin nahi zena, erantzuna hor non duzuen, erraza eta motza, bueno bukatzeko Lide,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Guk gaur plenora ekarri dugu gai hau, beste gauzen artean ba... bueno batzordean ez dagoelako Lioba, guk pentsatzen genuen Lioba egongo zela eta beti edo askotan azkenengo hitza kontuhartzaileena edo idazkariena izaten delako eta horren gain gelditzen delako eta nahi genuen berak erantzutea gauza hauek nola dauden eta berak nola interpretatzen duen parrafo hau, zeren guretzat interpretazio oso klaroa da, baino M. Eugeniak esan duen erara, orduan berak aber nola interpretatzen duen eta... ze gu Gizarte Zerbitzuetako batzordetan ba...Liobaren hitza askotan azaltzen da baino behinere ez dago Lioba, orduan gaur hemen egiteko posibilitatea baldin bazeukan ba... hari galderak egiteko aukera geneukan.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno ba... Liobaren hitza, adibidez, hazienda batzordean aipatu daiteke edo nik egunen batean agian esango diot Liobari ere ea esfuertzo bat egiten duen eta Gizarte Zerbitzuetako batzordera etortzen den. Hala eta guztiz ere badakit Liobak esan duela horrela ulertu litekeen esaldi bat dela, baina bueno, ni ez naiz inor bere hitzen orde hitzegiteko eta berari deituko diogu aber berak zer esaten duen. Besterik gabe.....

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.: Eta zergatik ez Gizarte Zerbitzuetan, es que..?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ba... bueno ez, nik aipatuko diot Liobari ba... esfuertzo hori egiteko eta etortzeko,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: (Mikrofonorik gabe)  
Lioba plenoetara etortzen da, Zumaia Lantzena, Haziendara....

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Eta guk erabakiko dugu ez?, nora eramaten dugun, ez? (Mikrofonorik gabe)

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Eta bakarrik falta zaio Gizarte Zerbitzuetara joatea .....(Mikrofonorik gabe)

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Informazioa ematea da garrantzitsuena eta ez non! (Mikrofonorik gabe)

SR. EMILIANO GONZALEZ CABAÑAS.: Tranquilos, que parece ser que no quieren que se recoja, que no quieren que se recoja....

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: No, no, Ez, informazioa banatzea dela garrantzitsuena eta ez non banatzen den, ez? Ba... langileen presentzia batzorde gehiagotan emateko beharrik ez baldin badago Gizarte Zerbitzuetan egon beharrean, bera ogasunean egon baldin badago, Zumaia Lantzen baldin badago, Plenotan baldin badago ba... bertan egon daiteke; eta Liobarekin egoteko plenoen zain egon beharrik ez dago, Lioba udaletxe honetako langilea da eta beste edozein langile bezala ba... zuen galderei, kekek eta zalantzei erantzuteko dago eta berarekin egoteko, nik usten dut erraztasun guztiak daudela eta atak zabal-zabalik daudela; plenoan galderak egin diezaizkiozute, baino bere bulegoan ere bai, eh? Eta argituko dizkizute argitu beharreko zalantzak, Gizarte Zerbitzura etorri behar baldin badu, ba... guretzako oraindik eta komodoagoa delako eta berari arratsalde batean etorriarazi behar baldin bazaio ba... ez, dakit, erabakiko dugu, hori, guk,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Por cierto, San Juan Egoitzako langileen baldintzak negoziatu zirenean aurreko legealdian, konkurrentzia non egon zen?

Ah... ez zarete akordatzen?; hori ez, honetara bai eta hartara ez. Han konkurrentzik ez zen egon,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, niri tokatzen zait,

Por cierto, San Juan Egoitzako langileen baldintza laboralak bernegoziatu dituzue, orain dela denbora gutxi? Zeren ez gara enteratu ere egin!

Eta gainera lehenago aipatu du % 20aren inkrementuarena etbr.; ni momentu honetan ez naiz akordatzen nola izan zen, baina akaso hori ez da estreinatu berriak diren pleguen eta kontratuen ondorengo kontu bat, beste bat baizik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Besterik gabe, bateren batek zeozer esatekorik? Eskerrikasko denei,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, barkatu, azkenengo galdera bat, badakigu pleno honetako gaia ez dela zuzen zuzenean, baina gauzak nola dexente nahastu diren azken boladan, zentzu horretan, Zumaia Lantzeneko azken Zuzendaritza Batzordean, eskaera zehatz batzuk egin genituen eta oraindik ere ez dugu inolako erantzunik jaso eta gure galdera da gutxi gora behera noizko pentsatzen duzuten haien erantzuna izango dugula,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ba... egia esan ezin dizut erantzun ze... hain zuzen ere guk ere beste galdera batzuk eta eskakizun batzuk egin ditugu eta oraindik ere ez daukagu esku artean, beraz, ba... bueno ahal den laburren pentsatzen dut edukiko dugula, ba... gaur egun administrazio kontseiluan dauden gerentearen aldetik.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Dena den, eskatu zitzaizkien txostenak, Zumaia Lantzenen administrazio kontseiluarentzako inongo lanik eta inongo funtziorik betetzen ez duten teknikari batzuri, beroiek beroien ba... borondate onenarekin egingo dute eta en tiempo y forma ba... ailegatuaraziko zaizkizue eta ailegatuarazten zaizkizutenean ba... edudiko duzute horren berri, bitartean ba... zain egotea tokatuko da, nahiko lan egiten ari direlako ba... udalak ere berak ere bere lanketa propioak aurrera eramateko eskatzen duen ba... lan kargari aurre eginez, eta bueno nahiz eta beroien ardura ez den, txosten hori ere egiteko disponibilitatea aurkeztu

dute eta egingo dute, Zumaia Lantzenen beroiei eskatu zitzaaien ez da beroien ardura eta ez da beroein egin beharra baina egingo dute,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Barkatu, aktan bi hitz nahi ditu aldatu, gaia ia pasa dugu, baino... onartuta daude, badakit usten dut...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA.: Nahi nuen esan, aktan mikronofoa konektatuta dagoen edo ez dagoen konektatuta, gauza asko usten ditu zentzurik gabe, askotan esanda dago, baino bueno. Zeren lehen aritu naiz irakurtzen aurrekontuen akta eta gauzak, neuk ere ez nituen ulertzen, eta gero konturatu naiz, nik zergatik esan nuen power-point eta ez dakit zer...eta badakit zer... eta klaro galdetu zidan, akordatzen naiz M. Eugeniak gero ez dakit nola etorri zait burura galdetu zidala, zerbait, eta klaro hori ez da azaltzen eta egiten du ba... ez direnean gauza batzuk azaltzen zentzu gabe utzi gauza batzuk, eta ez dakit,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Igual denok akordatu beharko dugu, mikronoa pizten eta itzaltzen eta, pentsatzen dut Maitek ere edukiko duela arazoren bat, askotan igual ere ez du aituko edo ez dakit, zein den arazoa, baina bueno..

MANU ZUBIA ARTABE JNA.: Bai, barkatu, es ke... egia da, azken batean hor gertatzen dena da, norbaitek zerbait esaten baldin badu, ez da grabatzen eta gero ez dauka zentzurik esaldi guzti horrek, orduan, ez dakidana da igual komenigarria izango litzatekeen ba... grabatzen dena nonbaiten jarri eta kitto. Horrela edukiko genuke dena batera....

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ea posible den, berriz ere errepasso bat emango diogu asuntoari, Eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzirak eta hogeita minutu direnean eta nik ordezkoko Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas veinte minutos y yo el Secretario acctal doy fé,



Alkateak,

Idazkariak,